



Administrazioa

Euskarari buruzko Foru Legearen aplikazioa eta garapena Nafarroako Foru Administrazioan

(Application and normative development of the Law on the Basque language in the Administration of Navarre)



RODRÍGUEZ OCHOA, José M^a

Urdaxeko monasterioa 38
31011 Iruñea
rodochoa7@hotmail.com

BIBLID [1137-1951 (2003), 11; 33-38]

Euskarari buruzko Foru Legea 1986an aldarrikatu ostean, 70/1994 eta 135/1994 Foru Dekretuek arautu zuten Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera. 1996tik aurrera, baina, errotiko aldaketa gertatu zen euskararen politikaren esparruan, 372/2000 Dekretuarekin.

Giltza hitzak: Nafarroa. Foru Hobekuntza. Euskararen Foru Legea. Administrazio publikoa.

Za primera regulación del uso del euskera en las Administraciones Públicas de Navarra, tras la promulgación en 1986 de la Ley Foral del Vascuence, se produjo con los Decretos Forales 70/1994 y 135/1994. Sin embargo, a partir de 1996 tiene lugar un cambio radical en cuanto a la política sobre el euskera, que culmina con el Decreto 372/2000.

Palabras clave: Navarra. Amejoramiento del Fuero. Ley Foral del Vascuence. Administración pública.

Za première réglementation de l'usage de l'euskara dans les Administrations Publiques de Navarre, après la promulgation de la Loi Foral du Basque en 1986, ne verra pas le jour publiquement jusqu'aux Décrets 70/1994 et 135/1994. Pourtant, à partir de 1996 survient un changement radical concernant la politique de la langue basque, qui atteint son point culminant avec le Décret 372/2000.

Palabras clave: Amélioration du "Fuero". Loi Foral du Basque. Administration publique.



1. Sarrera

Gaia lantzen hasi baino lehen, jakinarazi nahi dizuet Nafarroako Foru Administrazioa mugatuko dela euskararen erabilerari buruz emango dudana azalpena. Kanpoan utziko ditut, beraz, Nafarroako Administrazioa lokala eta periferikoa.

Euskararen erabilerari buruzko Nafarroako araudiak honako ezaugarriak ditu. Hasteko, **laburra** da: beste autonomia erkidegoetako araudiakin alderatuta, Nafarroako Foru Administrazioan euskararen erabilerari buruzko araudia oso laburra da. Ikusiko dugun bezala, Euskarari buruzko Foru Legearen Titulura eta foru dekretu batera mugatzen da ia. Aurrekoaz gain, **murriztailea** da; eta hauxe da, hain zuzen ere, bere ezaugarri nagusia. Foru Hobekuntzak murriztu egiten ditu Konstituzio espainiarrak hizkuntzen koofizialtasuna aldarrikatzean euskarari aitortzen dizkion ondorioak. Gainera, Foru Lege honek modu murrizkorrean interpretatzen du Foru Hobekuntza. 135/1994 Dekretuak murriztu egiten ditu 70/1994koaren xedapenak, eta honenak, era berean, 372/2000 dekretuak. Azkenik, **atzerakoia** da, aurrerakoia izan beharrean. Gobernuak onarturiko azken araudiak UPNk eta Del Burgoren Grupo Popularrak Euskarari buruzko Foru Legea onartu baino lehen finkatu zuten jarrerara itzultzen du kuestioa.

Gainera, aipatu behar da Nafarroan euskarari buruz onartu diren arau guztiek polemika piztu dutela. Sekula ez da hizkuntza normalkuntzaren inguruan **adostasun** edo orekarik lortu.

Aipatu berri ditudan puntuek, euskarak Nafarroako Foru Administrazioan bizi duen egoeraren ardatza osatzen dute. Labur bada ere, Nafarroako araudiak gai honi buruz finkatzen dituen alderdi nagusiak ikusiko ditugu jarraian.

2. Foru Hobekuntza eta euskararen ofizialtasuna

Diktadura garaia amaitu eta Konstituzioa onartu zenean, ez ziren bide txarretik joan foru lurraldean eman ziren lehenengo urratsak. Honela zioen Nafarroako Parlamentuak 1980ko azaroaren 3an emandako Ebazpenak:

“Nafarroako hizkuntza ofizialak gaztelania eta euskara izango dira. Printzipio hau

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Oinarrietan jasoko da, eta baita Foru Parlamentuak lege baten bidez arautzeko eskuduntza osoa ere”.

Baina aski ezagunak diren debate luzeen ostean, horrela gelditu zen Hobekuntzako testua, Foru Parlamentuak onartutako 1982ko martxoaren 15eko erabakiaz geroztik:

“1. Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala.

2. Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eremu euskaldunetan.

Foru lege batek...”

Hona hemen Nafarroan euskararen ofizialtasun lurraldetar partziala finkatzen duen artikulua. Oso garbi ikus daiteke Konstituzioko 3.2 artikulua aldean duen izaera murriztailea. Beste autonomia erkidego batzuetan ere bazeuden hizkuntzaren erabileraren ikuspegitik oso desberdinak ziren eremuak, baina ez zuten ofizialtasun lurraldetar partzialaren formula erabili. Eta deigarria da adierazpen hori Auzitegi Konstituzionalak 82/1986 Epaia eman ondoren egina dela. Epaia horretan adierazten zuen “hizkuntza bat ofiziala dela bere errealitatea eta fenomeno sozial gisa duen zama edozein izanik”.

3. Euskarari buruzko Foru Legea

Ez naiz hasiko gobernu sozialistak aurkeztutako lege proiektuaren inguruan sortu zen eztabaida parlamentarioan sakontzen. Horretarako, irakur ezazue Goio Monrealek *RIEV*-en argitaratu duen lana¹. Legearen I. Titulua bakarrik aztertuko dut, **erabilerari normal eta ofizialari buruzkoa**.

Euskarari buruzko Foru Legeak hizkuntza propioa duten beste autonomia erkidegoetako legeekiko duen ezaugarri nagusia **zoniifikazioa** da. Izan ere, Legeak hiru eremu linguistikotan banatzen du Nafarroa. Ikus ditzagun banaka:

3.1. Eremu euskalduna

Eremu euskaldunetan euskarak eta gaztelaniak ofizialtasun maila bera dute, eta, funtsean, beste autonomia erkidegoetan onartu diren xedapenen antza handia daukate.

1. MONREAL ZIA, Gregorio. “Origen de la Ley del Vascuence en Navarra”, In: *RIEV*, 46, 2, 2001; 517-543 orr.

RODRÍGUEZ OCHOA, J. M^º. “Euskarari buruzko Foru Legearen aplikazioa eta garapena Nafarroako Foru Administrazioan”. *Eleria*. 11, 2003, 33-38



Adierazpen nagusia honakoa da: "herritar guztiek botere publikoekin euskaraz edo gaztelaniaz erlazionatzeko eta hizkuntza horretan atendituak izateko eskubidea daukate".

Eta eskubide horrek ez lukeenez konsistentziarik izango botere publikoetarako betebeharririk ezarriko ez balitzaie, esaten da: "botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte eskubide hau eraginkor bihurtzeko". Neurri horien artean, honakoak azpimarratuko nituzke:

- 1) "administrazio publikoek eta izaera publikoko enpresek, eremu euskaldunetan lan egiten duten langileen euskara erabiltzeko gaikuntza progresiboa sustatuko dute"
- 2) "Administrazio bakoitzak zehaztuko du zein lanposturako izango den nahitaezkoa euskara jakitea, eta gainerakoetan merezimendu kualifikatutzat hartuko da"

3.2. Eremu mistoa

Eremu euskaldunerako xedapenetan adostasun handia lortu zen, baina eremu mistoko administrazioetan euskara erabiltzeari buruzko debate parlamentarioetan, ordea, garbi ikusi zen taldeen artean ezadostasun handiak zeudela. Hain zuzen ere eremu mistoa izan zen eta da benetako auzia. Eta eremu horretan dago Iruña hiriburua, Administrazio autonomikoaren zerbitzu nagusien egoitza.

Azter dezagun pixka batean historia. Gobernuaren proiektuak oso ondo egituraturako hiru artikulua zeuzkan. 16. artikulua: herritarrek Administrazio Publikoari euskaraz zein gaztelaniaz zuzentzeko eskubidea dute. 17. artikulua: Administrazioek urteroko enplegu publikoaren eskaintzan zehaztu beharko zuten euskara jakitea nahitaezkoa zuten lanpostuak. Gainerako lanpostuetan merezimendu gisa baloratu ahal izango zen euskara jakitea. 18. artikulua: Nafarroako gobernuak [...] Foru Erkidegoko Administrazioko Saitetan euskararen erabilera bermatzeko beharrezkoak diren neurriak erregelamenduz onartuko ditu.

Baina azkenean artikulua bakar batean utzi zen proiektuko testua, Euskarari buruzko Foru Legeko 17.ean alegia.

Xedapen hau funtsezkoa da Administrazio Publikoetan euskara erabiltzeari dagokionez. Eta emendakina itundu zuen talde parlamentario bakoitzak modu desberdinean interpretatzen zuten. Gaur egun ere hortxe dago koska.

3.3. Eremu ez-euskalduna

Administrazioengana euskaraz zuzentzeko eskubidea daukate, baina gaztelaniazko itzulpena eska diezaiekete.

Labur esanda: Hobekuntzari buruz esan duguna bezala, Euskarari buruzko Foru Legean erabilitako irizpideak ere murrizkorrak izan ziren. Baina sobera ezagutzen ditugun muga guztiak hor egon arren, gaur egungo Foru Legea Nafarroako edozein gobernuak Foru Administrazioan politika linguistiko positibo eta eskuzabal bat lantzeko moduko tresna da.

4. Legearen aplikazioa eta garapena

Euskarari buruzko Foru Legea aplikatzeko orduan, garrantzi handia du Hizkuntza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak, legea onartu zenetik bi urtera sortua. Hasiara-hasieratik, euskara sustatzeko ekintza eta plan garrantzitsuak bultzatu zituen, bai Foru Administrazioan, bai Administrazio Lokalean. Horien artean, aipa dezagun administrazioko langileen formazio linguistikorako sortu zuen euskaltegia.

Baina deigarria da euskara administrazio publikoetan erabiltzeari dagokionez araudia garatu ez izana. Horrek airean uzten zituen hainbat eta hainbat ekintza partzial. Oinarri juridiko baten beharra ikusten zen. Eta hori 1994an sortu zen.

4.1. 70/1994 eta 35/1994 Foru Dekretuak

Hiru alderdi nagusi ditu 70/1994 Dekretuak:

- a) eremu euskaldunetan bi hizkuntza ofizialak lan hizkuntza gisa hartzea eta hiritarrak zerbitzatzeko modu berean erabiltzearen helburua, eta Foru Administrazioko zerbitzu nagusietan zirkuitu administratibo elebidunak sortzea.
- b) Bi eremu linguistikoetan, elebitasun instituzionalaren irudi koherentea ematea kanpora eta barrura.
- c) Euskararen derrigortasun eta balorazioa Administrazioko lanpostuetan sartzeko.

Arraroa bada ere, gobernuko partidua Dekretuaren aurka azaldu zen. UPNko alderdirik gogorrenak erabateko oposizioa agertu zion, eta 1986ko debategoan eskuindarrek erabilitako argudio guztiak berreskuratu zituzten.

Baina Gobernuko Aholkularitza Juridikoak emandako txosten batek agerian utzi zuen Dekretuaren aurka jaurtitako salaketan inkonsistentzia. Hala ere, gobernuko alderdian giroa lasaitu eta egoera bere onera eraman ahal izateko, azkenean Dekretua derogatu eta berri bat onartzea erabaki zen.

Nolanahi ere, dekretu berri bat izan beharrean, 135/1994 Dekretuak aldaketa batzuk sartu zituen, eta 70/1994 Dekretuak eremu mistorako aurreikusitako xedapen ugarietan exigentzia maila jaitsi zuen batik bat.

4.2. Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioaren normalizazio linguistikorako hobekuntza plana

Nafarroako Gobernuak 1995eko abenduan onarturiko planak bi puntu nagusi ditu:

- a) eremu euskaldun eta mistorako irudi korporatibo-instituzional komuna.
- b) maila administratibo eta asistentzialerako zirkuitu administratibo elebidunen diseinua eta garapena.

Hiruko gobernuaren plana, Foru Administrazioan euskararen erabilera normaltzeko egin den agiririk positibo eta onuragarriena da, dudarik gabe, baina, tamalez, plan hau ezin izan zen gauzatu.

4.3. 372/2000 Foru Dekretua

Zergatik derogatu zuten 135/1994 Dekretua, bere garaian UPNko sektorerik erradikalenen oniritzia jaso bazuen, eta gaur egun gobernuko presidentea denak pasarterik polemikoenen idazketan pertsonalki hartu bazuen parte?

Zioen Azalpenean adierazitako arrazoiak ez dira behar bezain zehatzak. Dekretu berri baten onarpena justifikatzeko ezin da esan nafar guztiei aukera berdina eman nahi zizkiela Administrazio Publikoetako lanpostuetan sartzeko.

Benetako arrazoi oso bestelakoa da. Nafarroako Gobernuan UPN jarri zenetik, garbi gelditu zen gobernu berriak euskararekiko zeukan beligerantzia. Benetako asmoa askoz ere handizaleagoa zen: Euskarari buruzko Foru Legea okerrera aldatzea. Baina gehiengo parlamentarioa eskuraterik ez zeukanenez, foru dekretuaren bidea hartu zuen.

Horrez gain, bazen egoeraren arabera faktorerik ere. Sozialista nafarrak aliantza politikoa eta estrategikoak aztertzen ari ziren, eta besteak beste aldatu egin zuten euskararekiko jarrera. Horren erakusle, 2000ko maiatzeko Ebazpen Politikoa dugu.

Ez daukat denborarik Dekretuaren edukia xehetasunez azaltzeko, beraz bere alderdirik esanguratsuenak aipatu besterik ez ditut egingo:

- Eremu euskaldunean, erabat desitxuratu da Euskarari buruzko Foru Legeak aldarrikatzen duen elebitasun ofizialaren oreka, eta gaztelaniaren alde egin da.

- Baina okerren gelditu dena eremu mistoa da, dudarik gabe. Irudi instituzional elebidunari buruzkoa errotik ezabatu zen, baina aldaketarik handiena, hala ere, zirkuitu administratibo elebidunak kendu izana da, hain zuzen ere hori baitzen aurreko dekretuen ekarpen nagusia. Zirkuitu hauen orde, "euskara-gaztelania itzulpenak egiteko unitate administratibo" bat aurreikusi da.

Del Burgok aspalditik zerabilkien ideia hau buruan, Euskarari buruzko Foru Legea onartu baino lehenagotik. Hona hemen bere formulazio literala: "Zer berrmatuko den? [Foru Legeko 17. artikuluari dagokionez]. Herritar guztiek Nafarroako Administrazio Publikoengana euskaraz zuzentzeko eskubidea izatea. Besterik ez. Hori da guztia: Administrazioei idazkiak euskaraz aurkeztu ahal izatea. Eta horretarako nahikoa da euskaraz idatzitako idazkiak itzuliko dituen bulego batekin. Eta kito. Jakina, Administrazioa ez da inolaz ere erantzuna euskaraz ematera konprometitzen".

- Euskara merezimendu gisa baloratzearen kontua ere aurreko dekretuarekiko aldaketarik handi eta arbitrarioenetako bat du. Zauritu egiten ditu beren hizkuntza gogotik maite duten nafar askoren sentimenduak, eta berezko hizkuntza baten aurrean gehiegikeria politikoa eta errespetu falta ematen ditu aditzera.

Bestetik, Dekretua inkongruentziaz beteta dago, eta maiz urratzen du ordenamendu juridikoa. Honen inguruan, ikus ezazue Juan Cruz Allik prestaturiko azterlan zabala –ehun orritik gorakoa– *Eusker*a aldizkarian, berrogeita seigarren zenbakian, 2001 urtekoa. Gainera, garbi ikusten da Dekretuaren helburuak eta bere edukia ez datozela bat. Zentzugabea da aurreko dekretuen helburuak mantentzea, eta gero oso bide ezberdin eta askotan kontrajarriak hartzea.

4.4. Euskararen erabilerari buruzko araudia eremu euskaldun eta mistoan aplikatzeko ekintza plana

Bakar-bakarrik esango dut UPNren gobernuak 2001eko urtarrilean eta otsailean hartu zituen akordioek are gehiago murrizten dizutela 372/2000 Dekretuko neurriak, eta diseinatzen dituzten planak, sustagarriak izan beharrean, oztopatzaileak direla.

Irudi instituzionalari, hiritarrentzako zerbitzuei eta lanpostuetan sartu eta hornitzeari buruzko kapituluetan hatutako neurri batzuk ez datoz bat Dekretuko xedapenekin, eta, oraintxe azaldu dudana bezala, ezta ere dekretu horrek berak eremu euskaldun eta mistorako finkatutako helburuekin ere.

4.5. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiak

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak bi epai eman ditu 372/2000 Foru Dekretuaren kontra azaldu direnak: 2002ko ekainaren 26koa eta ekainaren 28koa. Lehenengo errekurtsua (200/01) Euskara Kultur Elkargoak tarteratu zuen, eta bigarrena (209/02) LAB, ELA, ESK, CGT/LKN eta STEE/EILASek. Esandako ebazpenek guztiz deuseza deklaritzen dute Dekretua. Bi kasuetan ebazpenaren funtsa da Dekretu hori aldarrikatzeko prozeduran bi txosten falta zirela: Euskararen Nafarroako Kontseiluarena eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena².

2002ko ekainaren 26an, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak, aipatu 2001eko otsailaren 5eko Ebazpenaren kontrako epaia eman du. Lekunberri eta Lesakako Udaletxeek, Idoia Saralegi San Sebastián eta Milagros Rubio Salvatierra andreekin batera tarteratutako errekurtsuari (444/01 errekurtsua) erantzunez. Plana deuseza deklaritzen du epaiak, aurreko arrazoi beragatik, legezko txostenak ez eskatzeagatik, alegia.

5. Ondorioak

Eta, bukatzeko, ondorio batzuk azpimarratu nahiko nituzke:

- euskarak Foru Autonomia Erkidegoan bizi duen egoera larriaz jabetu beharra daukagu, eta, bereziki, Administrazio Publikoetan bizi duen egoeraz.
- Konturatu behar dugu gaur egungo egoera lehengoa baino askoz ere okerragoa dela: lehen araudiaren urrapena errekurritu zitekeen; baina orain araudia bera da okerrera egin duena.
- Esandakoa gertatzen ari da jende askok ez duelako onartzen Nafarroan benetako elebitasuna daukagunik, elebitasun hori asimetrikoa izan arren. Eta hori onartzen ez duten bitartean, euskara arrisku larrian egongo da.
- Azkenik, guztiz beharrezkoa da euskararen alde diharduten sektoreek **politika komun eraginkor zentzudun** bat bultzatzea euskara Nafarroan berreskuratu eta garatzeari begira.

2. Lan hau amaitu eta gero, Nafarroako Gobernuak Dekretu berri bat aldarrikatu du: 29/2003 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan Euskararen erabilera arautzen duena. Epaitegiek desemandako Dekretu bera dena, nahiz eta oraingoan, Euskararen Kontseilua berritu bati eskatu dioten aurretik aldeko informea.